




Sexu erasoak Altsasun

SAKANAKO ASTEKARIA • 2016ko otsailak 12, ostirala • 2. aroa • 540. zenbakia

>> 3/5

GUaiXE.eus

«Mari» film laburra mustukoduz Mazkiaraneke



Kultura >> 15

Altsasuko nesken futbol taldea Txapeldunen Faserako sailkatu da bere estreineko denboraldian. Otsailaren 20an ekinen diote



Kirolak >> 13

Zortzi egunetan bi hildako errepideetan

Larunbatean Aizkorben gizon bat hil zen. Aurreko astean autobatek gaztea harrapatu zuen

>> 6

Parlamentariak klinika bisitatuko dute

Klinika publiko bihurtzea aztertzeko mozioak ez du Nafarroako Parlamentuan aurrera egin

>> 8

Altsasuarretik duen Goya saria

San Felipe «Hijos de la Tierra-n»

>> 14

Kinto ospakizunak joan dira >> 10-11



Ihote deiaren segida

>> 16-23

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



info@dekovenavarra.com
www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU
Telf./Faxo: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



Eukene ZORIONAK
Eukene!!!! Askok maite zaitugu guapa. Izei, Olaia eta familia.



ZORIONAK aitatzok!!!!
Bihar ospatuko dugu. Maite zaitugu. Izei, Olaia eta ama.



Izei ZORIONAK
Izei!!!! Gure etxeko kirolaria. Izugarri maite zaitugu. Olaia ta gurasoak.



Eneritz ZORIONAK
5. urtebetetzear. Familia guztiaren partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra: **4,00€**

Bazkideak: **3,50€**

otsailak

12-18

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Gani Mirzo. Otsailaren 13an,



larunbatean, 20:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Irak-eko Domiz errefuxiatu eremuarekiko elkartasun kontzertua.**

Zinema

Paulina. Otsailaren 12an, ostiralean, 21:45ean eta otsailaren 14an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Joy. Otsailaren 12an, ostiralean, 22:00etan eta otsailaren 14an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

El viaje de Arlo. Otsailaren 14an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Los odiosos ocho. Otsailaren 18an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Film laburrak

Mari. Otsailaren 14an, domekan, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Yolanda Mazkarian Zelaia.**

Bizikleta irteerak

Mendiluzeko harrespila. Otsailaren 14an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:20ean Urbasako kanpinean. 60 km. **Barranka txirrindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Zero grabitatea. Otsailaren 18tik martxoaren 17ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

Hitzaldiak

Euskal preso eta iheslariak etxera. Otsailaren 12an, ostiralean, 18:00etan Arbizuko udaletxean. **Hizlaria: Juan Mari Olano.**

Baratza eta ilargia. Otsailaren 12an, ostiralean, 19:15ean Bakaikuko udaletxeko goiko aretoan. **Hizlaria: Aingeru Tabar.**

Elikadura jokaeren nahasteen errealitatea (anorexia, bulimia eta abar). Otsailaren 15ean, astelehenean, 18:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean. **Hizlaria: Garbiñe Agirre, anorexiaren eta bulimiaren kontrako Euskadiko elkarteak.**

Bestelakoak

Inauteri festa. Otsailaren 13an, larunbatean, 17:00etatik aurrera Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Futbolin txapelketa. Otsailaren 14an, domekan, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Zerbitzu sozialen defentsan, zaintza zaindu. Otsailaren 15ean, astelehenean, Etxarri Aranazko azokan, otsailaren 16an, asteartean, Irurtzungo azokan eta otsailaren 17an, asteazkenean, Altsasuko azokan, 11:00etatik 13:00etara. **LAB.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Otsailaren 12an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Otsailaren 14an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

>> Altsasu

Sagrado Corazoni ingurumen saria

Sagrado Corazon ikastetxearen patioan ehun urte izanen dituen hagina dago. Zuhaitzaren inguruko diziplina arteko proiektua landu dute ikastetxeko DBHko ikasleek, natur zientziak, literatura, matematikak eta teknologia ikasgaiak hartzen zituena. Josune Perez eta Eva Uriz irakasle-koordinaziopean *Gure Zuhaitzak* lana ondu zuten. Felix Rodriguez de la Fuente fundazioaren *En Arbolar* lehiaketara aurkeztu zuten eta zuhaitz berezien inguruko Nafarroako saria irabazi du Sagrado Corazon ikastetxeak. Zehazki, bizitzarako zuhaitz handiak proiektuaren barruko sari-keta da Altsasuko ikastetxean irabazi dutena. Europako Batasunaren Life+ programaren laguntza du. Bere helburua zuhaitz bereziak eta mendeak dituzten basoak zaintzea eta haien gaineko kontzientzia handitzea da.

SARI GEHIAGO

Sagrado Corazon ikastetxea ikastetxe jasangarrien sareko kide da, (EsenRed). Jasangarritasunaren nazioarteko gazteen konferentzian, Confint-en, Nafarroa ordezkatzuz Bartzelonan izan ziren ikasleak 2014an eta, gero, haietako bat Bruselan joan den urtean. Bestalde, Atresmedia fundazioak eta Santillanak emandako *Hezten duten ekimenak* saria eskuratu zuen ikastetxeak 2014an. Ingurumen arloan, energia kontsumo murrizteko eta sortzeko *Txirrindulargi* proiektua dute. Ikasleak ikastetxera oinez segurtasun osoz joateko ibilbidea egin dute. Bestalde, birziklatutako tresnekin txoko berdeak eta lortegi bertikalak egin dituzte.

SAKANA

Elikadura jokaeren nahasteak zertan diren jakiteko

OTSAILAREN 15EAN, ASTELEHENEAN, 18:30EAN, ALTSASUKO IORTIA KULTUR GUNEAN HITZALDIA

Gaztaroan izan daitezkeen elikadura jokaeren nahasketen errealitateagurasoei azaltzea. Horixeda Altsasu institutuko guraso elkarteak eta Burunda Mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatutako hitzaldiaren helburua. Anorexia eta bulimia dituzten pertsonen senideen elkarteak, Acabeko, koordinatzaile Garbiñe Agirre izanen da hizlaria. Gaiarekin interesa duen edozein pertsona dago hitzaldira gonbidatuta.

>>



Interneten Erabilera Seguruaren Eguna ikastoletan

Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastoleto DBHko 4. mailako ikasleek, Nafarroako gainontzeko ikastoleto ikasleen modura, Interneten Erabilera Seguruaren Eguna ospatu zuten atzo, otsailaren bigarren asteko bigarren egunean. Nafarroako ikastolak Europako eTwinning eskola sare-kideak dira horren barruan, *Jolas dezazun zure parte Internet seguruagoa lortzeko* lelopean ospatu zen eguna. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Gaurko gaiak:

- Yolanda Mazkarian
- Altsasuko sexu erasoak
- Haize Berriaken DVD aurkezpena

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

Sexu eraso Altsasun

>> Altsasu

Jendetzak sexu eraso salatatu du

Eraso sexistarik ez, ez Altsasun ez inon. Aski da! leloa zuen pankartaren atzean mila bat pertsona elkar-tu ziren Foru plazan herenegun. Larunbateko kinto ospakizunak zirela eta Altsasun festa giroa nagusi zela emakume batek taberna batean eraso matxista larria pairatuzuen, Guardia Civila ikertzen ari dena. Sexu eraso hori salatzeke Altsasuko mugimendu feministak

kontzentrazioa deitu zuen. Harekin bat egin zuten makina bat altsasuarrek, baita udaleko kideek ere. Gainera, UPNko Cristina Altuna, Geroa Baiako Consuelo Satrustegi eta EH Bilduko Asun Fernandez de Garaialde Lazkano parlamentariak izan ziren.

Kinto ospakizunetako azkena zuten gazteek, zortzikoen dantzak eten eta kontzentrazioarekin bat

egin zuten. Ordu laurdeneko elkarretaratzea txaloeekin eta erasorik ez eta erasorik ez erantzunik gabe moduko oihuekin bukatu zen.

Bilkuran

Altsasuko mugimendu feministatik adierazi zutenenez, "Euskal Herri guztia festetan den egun hauetan hainbat herritan eraso matxistak izan dira: Tolosan, Lantzen eta bai-

ta Altsasun ere. Erasoa bat eraso bat da eta ez du justifikaziorik. Berdin da zein testuingurutan den, festak badira ere". Festa giroko jokabide matxista guztiekiko gaitzespena adierazi zuten, "larrienetik txikienera. Jaia eta festa ez dira inolako aitzakia duintasunaren kontrako jokabideak onartzeko".

Feministek gogorarazi zutenenez, "kaleak, gauak, egunak, jaiak, per-

tsona guztion gozamenerako dira". Eta gaztigatu zuten: "eraso hauek gizarte arazo bat dira. Jendarte guztiaren ardura da akto matxista hauei erantzutea. Kolektiboki ardurari hori gureganatzen dugun heinean, halako erasoak gutxitzen joanen dira". Horri lotuta, "eraso matxisten aurrean, jarrera aktiboa mantentzea pertsona guztion ardurara" dela gogorarazi zuten.



Eraso sexistaren aurrean Altsasuko Udalaren adierazpen instituzionala

Larunbatean Altsasuko taberna batean gertatu zen sexu erasoaren aurrean Altsasuko Udalak adierazpen instituzionala onartu zuen atzo

Altsasuko Udalak jokabide matxista ororen aurka dagoela adierazten du, "edozein izanik ere hura eragin duen pertsona edo entitate, eta are gehiago emakumeen osasunaren, duintasunaren eta askatasunaren aurkakoa denean". Gehiago, uste osoa duela festetan eta jai-eremuetan ohiko diren jokabide hauek

ez direla gertatzen giroarengatik edo drogak kontsumitzeagatik, bai zik eta emakumeen eta gizonen arteko harremanak berdintasun ezan oinarrituta daudelako.

Era berean, Altsasuko Udalak konpromisoa hartzen du indarkeria edo eraso matxistak pairatu dituzten emakumeen alde egiteko eta, batez ere, egoera horiek prebenitzeko, Udalak argi baitu emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egitea dela bide

bakarra, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko. Herritar guztiei dei egiten die modu aktiboan parte hartzea udalak garatzen dituen eta berdintasunarekin eta indarkeriaren prebentzioarekin lotuta dauden programa eta proiektuetan.

Adierazpen horren bidez dei egiten die, alde batetik, Altsasuko neskei eta emakumei eremu pribatua eta publikoa erabakitzen duten eran okupatzeko duten esku-

bideari eutsi diezaioten; eta, bestetik, Altsasuko mutilei eta oro har gizonezkoiei emakumeen aurkako indarkerian duten arduraren gainean gogoeta egin dezaten, eta kontuan har dezaten haien jokabide erabakigarria izango dela hura ezabatzeko.

Altsasuko Mugimendu Feministak atzorako deitu zuen elkarretaratzearekin bat egin zuen udalak eta altsasuar guztiak parte hartzea gonbidatu zituen.

Eraso kasuan zer egin? 112 telefonora hots egin

Indarkeria matxistaren eraso bat jasan duen emakumeak 112 telefonora hots egin behar du. Altsasuko berdintasun teknikari Idoia Goikoetxea Gomezek azaldu digunez, "dei bakar horrekin erakunde eta profesional guztiak koordinatzen dira". Etxera joan eta beste ezer egin baino lehen, "erasoa gertatu eta lehenengogauza" 112 telefonora deitu beharra azpimarratu du teknikariak.

"Kaleak eta parrandak ere emakumeenak dira"

Altsasuko mugimendu feministako kideak

Eraso matxista larria festa giroan...

Hori da Altsasun gertatu dena. Askotan iruditzen zaigu gauza hauek kanpoan gertatzen direla. Gure herritan ere gertatzen da. Lantzen, Tolosan, Gasteizen... Festa hauetan leku askotan izan dira eraso matxistak. Zoritxarrez, Altsasun ere.

Halakoak gertatzen direnean festa giroarena nabarmentzen da.

Erasoaren ondoren aitzakiak entzun

izan ditugu. Hau ere zerbait feministak da. Aitzakiak entzuten dira gure ardura onartzen ez dugulako. Berriro ere emakumea dudan jartzen da halako aitzakiek: parranda zela, ez naizela gogoratzen, zu ere etorri zirela... Halako gauza sentsazionalistak ezin ditugu onartu.

Kontzentrazio bukaeran esan duzuen, eraso bat eraso bat da beti.

Hori da. Erasoa bat beti da eraso

bat. Ez ditugu neurtu behar: hau txikia izan da eta ez dugu salatzea behar. Erasoa bat da. Pertsonaren duintasunaren kontra egin du. Eta, horregatik, salatzea behar da.

Eraso hau festarako leku batean izan da, baina erasoak edozein lekutan gerta litezke.

Kasu honetan parranda zen, gaua zen. Egia da guk, emakumeok, oraindik leku hauek gureganatu behar ditugula. Kaleak eta parrandak ere gureak direlako. Ezin dugu ahaztu egunerokotasunean gertatzen direla, eta edonon.

Autodefentsa feminista aipatu duzue behin baino gehiagotan.

Autodefentsa feminista gure

erronka bat da. Gure defentsa, gure eskubidea da. Ez bakarrik indibiduala. Kolektiboa ere izan behar du. Emakume guztiok bat egin behar dugu eta defendatzeko eskubidea daukagu. Ez da soilik eraso jasaten duen pertsonaren kontu bat. Autodefentsa kolektiboa izan behar du, guztion ardura.

Halako eraso jasaten duen emakume batek zer egin behar du?

Hasteko feministok hemen gaudela jakin behar du. Eta herriaren elkartasuna duela. Oso garrantzitsua da jabetzea errua ez dela berea. Bera parrandan, edo edozein testuingurutan dago, eta berak ez du eraso probokatu. Jakin dezala errua berea ez dela eta lasai egon dadila.

Eraso pairatu duen emakume batek zer ez du egin behar.

Behar bada pertsonala da. Baina egin behar ez duena da bere ohi-turak aldatu. Horrela sentitzen badu, ateratzen segitu behar du. Bere eskubideak eskatzen segitu behar du. Isilik egotea azkena, bere ahotsa oso garrantzitsua baita.

Eta mugimendu feministatik jendeari zein eskaera egiten diozue?

Ez dezagun ahaztu, gu Sakana edo Euskal Herri gisa, ez gara munduko parentesia bat. Mundu osoan bezala hemen ere erasoak gertatzen dira. Ez da zerbait ezberdina. Adi eta lanean egin behar dugu, beti.



Raf Abxuri

astekoa



* Sakana japonieraz.

Fiturren

Fiturrera bertaratu zen Madrilera sakandarren multzo adoretu bezain ongi gosaldutako bat. Momotxorroak, Juan Tranposoa, txistulariak, ereileak... baita Unanuko mamuxarruak dandismoaren kutsu pinpirin bat ematen ziotela ikuskizun basatiari. Sakandar segizio odoltsu, beldurgarri eta deigarria zinez.

Sakana bazter urrunetako publiko zabalaren begibistan paratzea zen xedea eta segurue-

nez zerbaitean bete da helburua. Agerpenaren harian egunkari batek sakandar ordezkartzaren kide baten adierazpen bitxi bat orriratu zuen: "Jendeak ez du Sakana ezagutzen. Japoniarra ematen duela esan digute". Bada ez jakin horiek ez zebiltzan oso oker japonieraz sakana hitzak arraina esan nahi duelako. Bitxikeria linguistikoaz harago miraz nago ordezkari haren txundimen eta eskandaluarengatik. Sakana

Pirinio eta Kantauri ondoko makina bat eskualde bezain ezezaguna da, Arabako lautada, Arratia edo Amikuze konparazio baterako.

Niretako zinezko txundigarriena ondoko hau izan zen: sakandar saldo bat Madrilera joan eta ez zapaltzea Auzitegi nazionala, huraxe bai berritasunaren nabarmena. Pentsamendu honek ekarri ninduen beste eldarnio apokaliptiko batera: momotxorroak eta enparauak

senak agindurik eta adarraren deiak besterendurik Fiturrera gabe Auzitegi nazionalera sartzen ziren joare eta zintzarrien durundi hotsak lagun. Epaike-ta gelan eta Enrike Zelaiaren begirada zorrotzaren pean eta Morkotsen arkatzik undergroundena erne momotxorro dantzarik psikodelikoena gauzatzen zuten. Palacios epailesak bitartean beste kafe bat eskatzen zuen axolabaiko.

Hura bai akelarrea!

barrutik kanpora

Ilbeltz gazi-goza

Baionako eta Bilboko karraketan oraindik aditu daitezke urtarrilaren 9ko manifestazioko oihuen oihartzuna. Gure senide preso-en eta iheslarien eskubideak urratzen dituen espetxe politika amaitzeko aldarriak argi eta ozen ailegatu ziren Madril eta Paris-ko Gobernuen belarrietara berriz ere. Baina, denbora tarte txikia pasatu da politika horretan epe motzean funtsezko aldaketarik gertatuko den esateko; eta, hala ere, urte hasiera hau gertakariz

beteriketorri zaigu: alde txarrak eta onak; ohiko gertakari latzak, baina inoiz ez ohitzeak; eta ohi ez bezalako erabakiak, pozaz baina zuhurtziaz hartu beharrekoak.

Olga Comes bisitatzera zihola haren lagun batek istripua izan zuen Leongo bidean Euskal Herritik atera baino lehen. Nafarroa eta Errioxa arteko mugan, atzetik jo zuen beste auto batek eta ospitalera eraman zuten zaurituta; baina, zorionez, ez zen

larriago izan. Etxerateg lan egiten du dispertsioak sortu dituen 16 hildakoak gatazkaren biktima gisa aitortu ditzaten. Istripuz hil ziren, baina istripuak euskal preso senide eta lagun zirelako gertatu ziren. Karmele Solaguren Ekain Gerraren ama zelako hil zen duela 12 urte, eta otsailaren 18an, haren oroimenezko ekitaldia eginen dute. Berriz ere inoiz gerta ez dadin, dispertsioaren 16 biktimen aitortza behar dugu.

Nafarroatik atera gabe, berta-

ko Parlamentuak istripua salatu du, zaurituari eta presoaren gertukoie elkartasuna adierazi die eta salbuespen espetxe politikak gaitzetsi ditu, preso sakabana-keta eta urruntzea barne, eta horiek bertan behera uzteko eskatu dio Espainiako Gobernuari. Gipuzkoako Batzar Nagusietan ere ildo beretik doan adierazpena onetsi dute.

Espainiako Auzitegi Nazionalen ere ohi ez bezalako jokabidea erakutsi dute fiskaltzak eta

epaileek, Askapenako auzipetuei absoluzioak emanez frogatuta argudioan oinarriturik; zenbat euskal preso ez ote ziren kaleren egon Auzitegi horrek argudio bera aplikatu izan balie. Gure aldetik esan pozgarria dela jakitea auzipetuek haiek saihestu dutela, eta haien senideek etxean izanen dituztela. Arestian esan bezala pozaz baina zuhurtziaz hartu beharreko erabakiak eta epaiak dira.

Etixerat

hara zer dien

Loa pertsona edadetuetan

Loa egiteko arazoak sarriak dira pertsona adinduengan. Faktore askok izan dezakete eragina loaren kalitate edo kantitate aldaketan:

- Adina.
- Zahartzearekin bat agertzen diren aldaketa fisiologikoak.
- Gaixotasunak (bihotzeko hutsegiteak, gaixotasun kronikoen erruzko minak, arnas-arazoak...).

- Botikak, alkohola, tabakoa:
- Estresa, antsietatea, depresio moduko faktoreak..., lo egiten den tokiaren beraren ezaugarriak: argia, zarata..., bizimodu, txandakako lana, pixa egiteko jaiki beharra...

Pertsona edadetuen loa ez da gazteena bezain sakon eta etenaldigabekoa. Lo hartze gehiagokostaten zaie eta goizago jaikitzen dira. Denbora gehiago pasatzen

dute ohean lo egin gabe. Pertsona adinduak gaueko 3 edo 4 aldiz esnatzen dira, nahiz eta osasuntsu egon. Lo pasatzen duten denbora mantentzen da edo arinki murrizten da (6,5-7 ordu gaueko).

Lo onerako higie neurriak:

- Oheratzeko eta jaikitze ordu finkoa mantendu, asteburuak eta oporrak barne.

- Jende askori esne epelak logalea suspertzen dio, izan ere, lasai-

garri baten antzekoa den aminoazido natural bat dauka.

- Kafeina eta teina daukaten edariak ez hartu (kafea, tea, "cola" edariak eta txokolatea), gutxienez, oheratu baino 3 edo 4 ordu lehenago.

- Bazkaldu ondorengo siesta 30 minutukoa baino motzagoa egin.

- Logelan tenperatura epela mantendu eta argi eta zarata maila baxuak izan.

- Ohean honako jarduerak hauek ez egin: telebista ikusi, irakurri, irratia entzun.

- Lo egin baino 2 ordu lehenago ez egin ariketa bizirik, ez erabili ordenagailurik edo ez ikusi telebista programa bortitzik.

- Arratsaldetan ariketa arinak egin.

- Alkoholak eta tabakoak kalte egiten diote loari.

Josefina Arregui Klinika

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano,

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Larraitx Amadoz Lazkano eta Erkuden Ruiz Barroso

ZUZENTZAILEA: Felix Altzelai

ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus

DISEINU ZERBITZUA: Guaixe komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus

ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995

TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

» **Etxarri Aranatz**

Etxarriko ikastetxeetan Sakanako hizkeren araberrako euskara batua landu dute

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak ibarreko hizkerak lantzeko saio bana antolatu du Etxarri Aranazko bi ikastetxeetan, irakasleei zuzenduta. Tailerrak Jose Luis Erdozia etxarriarrak (euskal filologian doktorea eta euskaltzain urgazlea) eman zituen, ilbeltzaren 27an San Donato eskolan eta otsailaren 4an Andra Mari ikastolan.

Tailerraren helburu nagusia Sakanako euskalkien eta batuaren erabilerrari buruz hausnartzea zen. Irakasleei zenbait galdera egin zitzaizkien: euskara batu berbera

erabili behar dugu Iruñean eta Etxarri klaseak emateko? Hizkerak berbera erabili behar da historia klasean, soinketan eta atsedenealdian? Hizkerak berbera erabili behar da goimailetan eta haur hezkuntzan? Galdera horiei erantzuteko zenbait baliabide eman zaizkie, nagusiki, Sakanako hizkeraren ezaugarri morfologikoak, sintaxi mailakoak eta lexikoak, euskara batuan onartuta daudenak.

Gaiak interesa sortu du bi ikastetxeetan. Horren adierazle bi ikastetxeetan taldea sortu zela. Denera ia 30 irakasle elkartu ziren.



Etxarri Aranazko eskola.

Ordu eta erdiko saioa motz egin zitzaizen irakasleei eta etorkizune-

an gaia lantzen jarraitzeko gogoz gelditu ziren.

» **Aizkorbe**

Gizona auto istripuan hila

Aizkorberako sarreran, NA 240-A errepide bazterrean dagoen etxe baten kontra zuzenean jo zuen auto batek larunbatean, 15:05ean. Tal-karen ondorioz 60 urteko Burlatako gizona gidaria hil egin zen. Suhiltzaileek gorpua autotik atera behar izan zuten. Ezbeharrak Guardia Civilak ikertu zuen.

Zazpi egunetan Sakanan errepidean hildako bigarren pertsona da burlatarra. Ilbeltzaren 31n Etxarri-tik Arbizurantz oinez zihoan gazte arbizuarra auto batek harrapatu zuen eta hil zuen. Auto gidariak ihes egin zuen. Joan den urtean trafikoko ezbehar bategatik sakan-dar bat hil zen.

» **Urdiain**

Eskolako bi talde Iruñeko robotika proban



Bi talde urdiaindar robotika proban Iruñean neurtu ziren. UTZITAKOIA

Nafarroako First Lego Leagueko Nafarroako kanporaketa Iruñeko Baluarte jauregian ilbeltzaren 30ean. Lehiaketaren helburuak zientzia, kultura, robotika eta balioen sustapena dira. Aurreko edizioetan bezala errobota egin, harekin probak bete eta, gainera, ikastetxean hondakinen birziklatzeari buruz egindako lan bat aurkeztu behar zuten talde parte-hartzaileek.

Nafarroa guztiko 23 talde neurtu ziren, 10 eta 16 urte arteko 200dik gora ikasle. Haien artean Urdaingo eskolako bi zeuden: ElectroDinamik eta Jentiltroniks. Lehen taldea hamar ikasle "handik" osatu zuten eta 4. parte-hartzea zuten lehiaketan. Bigarren taldean zortzi ikasle "txiki" zeuden eta estreinako parte-hartzea zuten lehiaketan.

Urdiaingo eskolako ikaslea den

Asierrek esan zigunez, herrian plastikoko ontzien tapoiak jasoko zituztela esanez oharra zabaldu zuten. "Asko jaso genituen eta birziklatzeko enpresara eraman genituen". Jasotako dirua Urdaingo Udalarari eman diote, "kirola egin ezin duten haurrentako" bideratzeko. Handien taldeak, berriz, QR kodigoa eta web orria sortu zuten. Zaborrik onena, sortzen ez dena leloari jarraituz, web orrian

Eskolako santa-eskea eta inauteriak

Urdiaingo herri eskolan ostegun eta ostiral ezberdinak izan zituzten aurreko astean. Santa Ageda bezpera zela eta eskolako ikasleak santa-eskean ibili ziren. Dago-kion moduan, makilez lagunduta, herrian barrena kantuan ibili ziren eta etxeetatik botatako patata frijitu poltsak eta bestelako litxarriak jaso zituzten. Haiekin guztiekin merendua egin zuten arratsaldean. Hurrengo egunean, inauteriak bertan zirela eta, txokolate-jana izan zuten eskolangoizean. Ondoren txanoak jantzi eta eskolan prestatutako dantzak gurasoenaurrean dantzatu zituzten.

enpresek produktuendako ordeko piezak proposatzeko aukera dute, "matxuratutako produktuak zaborretara ez botatzeko". Bi taldeek errobota egiten den bora asko eman zuten, baina txikienek handien laguntza izan zuten.

SAKANA

Gurasoendako emozio-adimen tailerra

Hurrengo hiru ostegunetan izanen da, 18:00etatik 19:30era, Uharteko Arakilgo udaletxean

Gurasoei zuzendutako emozio-adimen tailerraren helburua da ama eta aita direnak gaitasun eta kontzientzia emozionala garatzea, horrek familia barruan emozioak era egokiagoan erregulatzen eta kudeatzen lagunduko dielako. Emozio-adimena lantzeko tailerrean teoriarekin batera talde dinamikak egingen dira. Horrek norberaren hausnarketa erraztuko du eta gurasoek egunerokotasunean erabiltzeko estrategiak eta baliabideak jasoko dituzte. Tailerra Blas Campos Pedagogoak, orientatzailea eta familia eta bikotekide terapeutak emanen du.

Tailerra Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatu du eta Irañetako, Uharteko Arakilgo eta Arruazuko gurasoei zuzenduta dago. Tailerra otsailaren 18an hasiko da eta hilaren 25ean eta martxoaren 3an izanen du segida.

» **Unanu / Urdiain**

Aurten, estreinako, emakume unanuar batek katola jarri du.

Emakumeak ere

Unanun lehenengoz emakume bat jantzi da muttuz eta Urdiainen kintotan zortzikoa dantzatu du lehenengoz emakume batek

Aurten nobedadeak izan dira Unanuko inauterietan eta Urdiaingo Santa Agedako kinto ospakizunetan. Unanun, aurreko aldiz, emakume bat atera da mamuxarroz jantzia eta katola aurpegian. Muttuaren pertsonaia murgildu zen Aintzane Marin astearte ihote egunean. Muttuak mamuxarroak dira baina ez dituzte kaskarinak jantzen. Hortaz, ez dute hotsik egiten eta ez zaie entzuten. Marinek Berria egunkarian adierazi duenez

"pozik nago, emakume bat atera den lehen aldia delako eta herriko inauterietan parte hartu dudalako aktiboki, eta ez pasiboki, orain arte bezala".

Bestalde, Urdiaingo kintok, ohi bezala, zortzikoa dantzatu zuten igande eguerdian plazan. Urdiaingo 6 kintok dantzatu zuten zortzikoa eta tartean zegoen Sara-be Arakama. Bera kintotan zortzikoa dantzatu duen lehenengo nesakia izan zen. Bestalde, Urdiainen ohitura izaten da zortzikoa kintok, mutilek, euren amak dantzara ateratzea, eta Sarabek ama atera zuen ere dantzara.

Altsasuko Zelandi IP



Zelandi, 18
31800 Altsasu

☎ 948 564 839 ☎ 948 564 011
✉ cpalsasu@educacion.navarra.es
zelandieskola.educacion.navarra.es

Arbizuko Herri-Eskola



Kale Nagusia, 1
31839 Arbizu

☎ 948 460 763
✉ cparbizu@educacion.navarra.es
www.arbizukoherrieskola.blogspot.com.es

Etxarri Aranazko San Donato Herri-Eskola



Utzubar txiki, z/g
31820 Etxarri Aranatz

☎ 948 567 003
✉ cpetxarr@educacion.navarra.es
www.etxarrikoeskola.com

Iruztungo Atakondoa IP



Ardubil, z/g
31860 Iruztun

☎ 948 500 228
✉ cpirurtz@educacion.navarra.es
centros.educacion.navarra.es/atakondoa

Iturmendiko Arrano Beltza Herri-Eskola



Elizazpi, 1
31810 Iturmendi

☎ ☎ 948 563 414
✉ cpiturme@educacion.navarra.es

Lakuntzako Herri-Eskola



Larrañeta, 16
31830 Lakuntza

☎ 948 576 020
✉ cplakunt@educacion.navarra.es
lakuntzakoeskola.educacion.navarra.es/

Olaztiko Domingo Bados Herri-Eskola



Nagusia, 16
31809 Olazti

☎ 948 563 307
✉ cpolazag@educacion.navarra.es
sites.google.com/a/educacion.navarra.es/olaztiko-eskola/



SAKANAKO

Herri-Eskolak

Iturri
zaharreko
ur berria

Aurrematrikula
epea:
otsailaren
15etik 19ra

www.educacionnavarra.es
sakanakoherrieskolak@gmail.com

Uhartarakilgo San Migel Herri-Eskola



San Juan plaza, z/g
31840 Uhartarakil

☎ 948 567 100
✉ cpuharte@educacion.navarra.es
uhartarakilgoeskola.educacion.navarra.es/

Urdaingo Herri-Eskola



Elizazpi, 4
31810 Urdaiain

☎ ☎ 948 468 345
✉ cpurdiai@educacion.navarra.es

Non erabili

GIXANE ESTETIZISTA

ALTSASU

Produktua opari.

PINPILINPAUSA

ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

TEXARTU

IRUÑEA

Eskaintza kanpainaren arabera.

CLINKER

OLAZTI

Menu bereziarekin txupitua doan.

SORKUNDE HARATEGIA

ALTSASU

50 €ko erosketetan etxeko produktua doan

BERRIA EGUNKARIA

Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.

IKER KIROLAK

ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

%20ko deskontua kontsul-tan.

BASOMUTUR

ALTSASU

Menuan eta kartan %6ko deskontua.

BILTOKI TABERNA

ALTSASU

Eguneko menuan, kafea doan. Karta menuan, kopa doan.

SAKANA

Gobernuak ez du klinika publiko bihurtzeko aukera aztertuko



Josefina Arregiko langileak gaixo batekin. ARTXIBOA

Erreferentziako zentroa denez, hala eskatzen zuten EH Bilduren mozio bat atzera bota dute Nafarroako Parlamentuan

Nafarroako Parlamentuak, beste behin ere, Josefina Arregi klinika psikogeriatricoak egiten duen lana aho batez aitortu zuen. EH Bilduko Bakartxo Ruiz Jasok eraman zuen Altsasuko klinikaren aipamena Parlamentura. Ruizek Parlamentuari proposatu zion klinika zentro kontzertatua izateko publiko izatera pasatzeko aukera azter zezala. Hau da, "Osasunbideko sare publikoan sartzeko aukera azter dezala".

Ruizek adierazi zuenez, "azterketa horretan gobernuak irizpide juridiko, ekonomiko eta osasungintzaren planteamendu estrategikoari dagozkionak aintzat har-

Bisita
Nafarroako Parlamentuko kideak martxoan Altsasuko klinika psikogeriatricoa bisitatuko dute. EH Bilduk eskatu du bisita.

tu beharko lituzke eta eman beharreko urratsak". EH Bilduk gobernuari eskatu zion "aipatu azterketa Parlamentuan hiru hilabeteren buruan aurkezteko". Proposamena bozkatu zen eta ez zuen aurrera egin. EH Bilduk, Ahal Duguk eta I-Ek alde bozkatu zuten (17 boto), UPNk eta PPNk kontra (17 boto). Geroa Bai eta PSN abstenitu ziren. Berdinketa kasuetan mozioak ez du aurrera egiten.

Iritziak

UPNko Sergio Sayasek azaldu zuen atzo, gobernu funtzionatzen ez duena konpontzeko dagoela. Erregionalistak funtzionatzen duenaz zergatik aldatu behar ote den galde-tu zuen. Baliabide publikoak egungo kontzertuarekin egoki bideratuak daudela adierazi zuen. UPNkoek kontrako boza eman zuten. Geroa Baik abstentzioara jo zuen. Maria Solana parlamentariak EH Bilduk proposatutako ikerketa interesgarria dela esan zuen. Hala ere, osasun departamentuaren eta klinikaren arteko premiazko elkarlan markoa sortzea proposatu zuen. Marko horretan inplikaturako eragile guztiak parte hartzea proposatu zuen. Koalizioa zerbitzu publiko egitearen alde agertu zen baina lehentasunak markatuz. Ruizek errepika une-anerantzun zion elkarlan markoa egoki jotzen zuela. "Emendakin gisa aurkeztu bazenute, alde bozkaturako genuke". Baina zerbitzua hobetzeko aukerak jakinak direla gaineratu zuen, kontzertua hobetzea edo publiko egitea. Ahal Duguko Tere Saezek klinika publiko bihurtzearen alde daudela, eta beraz, azterketa egitea egoki jo zuen. Aldi berean, gobernu sustengatzen duten lau indarren programa-akordioaren berdintasun atala ekarri zuen gogora langileen lan baldintzez aritzean: "klinikako 52 langileetatik 48 emakumezkoak dira eta 4 gizonezkoak".

PSN abstenitu egin zen. Maria Chivitek administrazioak populazioari eman beharreko zerbitzuak zein diren zehaztu behar dituela aipatu zuen, "ez klinikaren premiak zein diren". Ikerketa egitearen alde agertu zen sozialista, baina ez publiko egitearen alde. "Zergatik klinika hau edo ez San Juan de Dios edo beste bat?" Kontzertuak errebisatu beharra aipatu zuen. Errepika txandan Ruizek azaldu zuen %98ko jardura publiko duen San Juan de Dios klinika publiko bihurtzearen alde dagoela EH Bildu. "Baina ez Iruñeko eta Altsasuko klinikek duten kontzertuak ez dira gauza bera. Altsasun aurrera egiten da langileen lan baldintzen prekarizazioagatik eta boluntarioen lanari esker". PPK kontrako botoa eman zuen. Javier Garcia Jimenezek azaldu zuenez, "egoki funtzionatzen duenaz zergatik aldatu behar da? Aldatzeko ez dugu beharrik ikusten". Baliabideen optimizazioaren eta publiko eta pribatuaren elkarlanaren alde agertu zen. Gartzia beste klinika batzuk zergatik ez diren aipatu nabarmen du. Eta Ruizek erantzunean gogorarazi zion aurrekontuen emendakinetan Altsasuko klinikari dirua kentzea eta hura Cimara eta CUNera bideratzea eskatu zutela popularrek. Azkenik, I-Ek aldeko boza eman zuen. Marisa Simonnek azaldu zuenez, "herritarren premiada eta klinikak publiko beharko luke". Ikerketa integrala egitea eskatu zuen.



LABek zerbitzu sozialen defentsan sinadura bilketa egingen du

Etxarri Aranatz, Irurtzun eta Altsasuko azoketan sinadura jasoko ditu astelehenean, asteartean eta asteazkenean, 11:00etatik 13:00etara. Hezkuntza eta Osasun sistemaren pareko izanen den gizarte zerbitzu publiko eta unibertsalen beharra aldarrikatu du.

LAB sindikatuak zerbitzu sozialen defentsan zaintza zaindu kanpaina abiarazi du. Sakanako hiru ibar buruetako azoketan, enprestan eta hainbat gunetan sinadura

bilketa egingen du. Jasotako babesak Hego Euskal Herriko bi gobernuetara aurkeztuko dizkiete, hiru eskarerekin batera. Batetik, adinekoen, adin txikikoen eta aniztasun funtzionala dutenen zentroetan plantillak handitzea. Bestetik, arreta integrala eskaintzea posible izan dadin, administrazioei profilen eta funtzio profesionalen hedapena bermatzatela. Eta, azkenik, langileen, erakunde sozialen eta erabiltzaileen parte-hartzea, zerbitzu sozia-

letako langileen beharrekin loturiko ebaluazio, kudeaketa eta erabakietan. Azken finean, Sakanako LABeko arduradun Gaizka Uhartek azaldu digunez, "bizitzan, eta hamaika zergatirengatik, gizarte-laguntzen beharra izan dezakegu. Administrazioak bermatu behar du eskubide hori, onuragarriak eta hurbilak diren zerbitzuak eskainiz". Uhartek gatzigatu duenez, "gizarte zerbitzuen egoera oso kezagarria da. Gizarte laguntzaren eskariak erruz gaituzten du eskaintza". LABeko kideak azaldu digunez, "lehendik ahulak ziren gizarte zerbitzuek gaituzten du ekonomia- eta gizarte-krisialdiagatik. Eskatzaileen kopurua igo egin da eta beharrak, premiak handitu".

Ondorioak

Uhartek azaldu duenez, "egun gizarte zerbitzuak eredu neoliberalaren arabera eratzten dira. Administrazioek zerbitzuak murriztu dituzte, eta era berean, erakunde pribatuaren esku uzten ari dira, eta beraz, horiek irabazi-interesak nagusitzen dira, zaintzaren kalitatearen kaltetan". Irabazien beharrak prestakuntza txi-



Lan osasunaren aldeko LABen ekimena.

kiagoko langileak kontratatzea, haiek gero eta lan baldintza kaskarragoak ezartzera, gero eta eskasagoa den zerbitzua eskaintzera. "Gizarte zerbitzuetako lan baldintzek ezinezko egiten dute laguntza egokia eskaintzea", adierazi du Uhartek.

LABeko kideak azaldu digunez, "profesionalen eta zaindu beharreko pertsonen arteko proportzioak adierazten digu lanaren gainkarga dagoela, eta ondorioz, bidera ezina da zaintza pertsonalizatua izatea. Baldintza horietan gizarte zerbitzuetako langileek egin behar duten ahaleginaren ondorioz haien osasunak txarre-egiten du". Josefina Arregi klinikako eta Aita Barandiaran egoitzako langileen artean lanarekin zerikusia duten gaixotasunek gorantz egin dutela esan du.

Ana Santano
Bularra ez da soilik elikadura
635 811 106
Gartzia Ximenez 16 · Altsasu

sorgiñak taberna
LAKUNTZA
948 576 357

www.guaixe.eus-en
zerrenda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua zorion@guaixe.eus-era edo hots egin
948 564 275 telefonora

Oroigarriak



Guaixe
KOMUNIKAZIOA
948 564 275



Pio Anso Urriza

Zure umore eta irrifarra ez dugu inoiz ere ahaztuko.

Familia

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarior: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€.
Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.
Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

Lana/ Negozioak
LAN ESKAINTZA
Euskara irakaslea behar dut Hezkuntza Eskolako goi-mailako azterketa prestatzeko. Interesatuak hots egin dezatela 669 97 63 44 telefonora.

Higiezinak
ETXEA

SALDU

Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri Aranatzen. 4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajea eta 130 metro karratuko lursaila. Interesatuak deitu 676 92 71 65 telefonora.

Pisua salgai Etxarri Aranatzen. 84 m² erabilgarriak, berrituta, eguzkitsua, 3 logela, komuna, egongela, sukaldia, trasteleku bat pisuan bertan, berogailua. 72.000 €. Interesatuak hots egin 654 23 41 02 telefonora.

ERRENTAN EMAN

80 m² dituen etxebizitza alokatzen dugu Etxarri Aranazen. 3 logela, sukaldia, komuna eta egongela. Altzariz horniturik. Garajea eta 30 m² ko lorategia barne. Tel 609 84 55 99.

Opatutakoak / galdutakoak
OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

Ikastaroak

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU). Bere udaberriko eskaintza aurkeztu du. Otsaila eta maiatza bitartean 4 ikastaro eta 4 hitzaldi antolatu ditu Nafarroan, www.ueu.eus

Oharrak

Amalur Montessori Haur Eskola. Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua, beren ongizatea bermatzen duen proiektu eskalduna. Harremanetarako 620 25 42 30 eta

amalur@amalurelkarrea.org

Elkartasun afaria Altsasun. Ukraina antifaxistarekin elkartasun afaria antolatu dute hilaren 19rako Altsasun, 21:00etan. Biltoki eta Lezea tabernetan eman daiteke izena. Egun berean, 19:00etan Interunit brigadako kideek hitzaldia emanen dute gaztetxean.

EGA prestatzen lagunduko dizut ingelesarekin laguntzen badidazu. Tel 634 42 29 74.

Liburu aurkezpena. "¿Quién con fuego?" eleberria aurkeztuko du Carlos Olló Razkinek Ziordiko liburutegian otsailaren 25ean, 18:30ean.

Irurtzungo irakurle taldea. "La madre" - Maximo Gorki. Martxoaren 3an, 18:00etan liburutegian

Nicoleren aldeko diru-bilketa. Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES 33 2100 5365 2301 0002 9770.

Lamias, Nafarroako Emakume Gazteak. Atzerrian dauden Estatu Españoleko gazteendako kompetentzia digitalak on line eta doan ikasteko aukera. Prestakuntza-programa 2016ko martxoaren 7an hasiko da eta bukatu ekainaren 5ean, 140 ordu izanen dira. Plaza mugatuak. Argibide gehiago: formacion@mujeeresjovenes.org. Izen ematea: <http://ow.ly/Xgg9Y>

Benigno omentzeko auzolana. Apirilean egun osoko omenaldia egingen da Urdiainen. Proiekturako den ikusentzunezkoa egiteko argazkiak behar dira. Baita egunean bertan lan egiteko. Harremanetarako: benignolagunak@gmail.com

Berria Beka. Berria Hedabideen Fundazioak, Berria Taldearen eta Laboral Kutxaren laguntzaz, Berria bekaren hirugarren aldirako deialdia egin du, euskara, hedabideak eta teknologia berriak kontuan hartuta proiektu berriak sortu eta martxan jartzeko. Proiektuak 2016ko apirilaren 1erako aurkeztu beharko dira eta proiektu irabazleak 12.000 euroko laguntza jasoko du proiektua martxan jartzeko.

Lakuntzako elkartasun zozketa. Zenbaki sari-tuak, hauek dira: Egur berogailua, 1244; Gurutz saskia, 828; Brindi saria, 681; Eder saskia, 2393;

ardo loteak, 121, 1886 eta 2376.

Sakanako Belenzaleen zozketa. 324 zb. Egoitzara joan saria jasotzera.

GoiEner Iruñean. Landare utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabete-ko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitza, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardura sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com edo amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean [xe.eus.](http://www.guai-</p>
</div>
<div data-bbox=)

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxa: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarrik eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioak, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garga-ardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzen, asteartean Irurtzun eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo [JAIOTZAK

- Luken Fernandez Sanchez, ilbeltzaren 31n Lakuntzan.
- Nisrin El Marnissi Azdoud, otsailaren 2an Uharte Arakilen.
- Nicolas Vargas Florescu, otsailaren 5ean Iturmendin.
- Rayan El Hassouny Blanco, otsailaren 5ean Altsasun.
- Heriotzak
- Josefina Frauca Jaen, otsailaren 2an Altsasun.
- Migel Angel Etxarri Irurtzun, otsailaren 6an Lakuntzan.
- Pio Anso Urriza, otsailaren 8an Bakaikun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.](mailto:immigrazio@sakana-</p>
</div>
<div data-bbox=)

mank.com posta elektronikoa.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intoxiapiuntan gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaituz Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzen du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzeko helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparaldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Kintoak Sakanan

Kinto ospazkizunak Sakanan



Altsasuko kintoek 16.000€ jaso dituzte.



Arbizuko kintoak kaleak alaituz ibili ziren.



Larunbatean eskean ibili ziren Bakaikuko kintoak.



Etzarri Aranazko kinto neska-mutil kuadrilla ederra.



Larunbat goizean Iturmendiko kintoak elkarrekin gosaldu eta kalez kale eskean ibili ziren.



Lakuntzako kintoak Pikota aurrean atera zuten talde argazkia.

Kintoak Sakanan



Olaztiko kintoak larunbat goizean opilak banatzen ibili ziren.



Uharte Arakilgo kintoek bat egin zuten ihote ospakizunekin.



Eguerdiko zortzikoak dantzatu eta gero poz-pez elkartu ziren talde argazkia egiteko.



Larunbat goizean trikitilariak lagundurik, ziardiarrei ardoa eta tabakoa eskaini zieten esker onez.



Atletismoa

Sakanako Kopa jaso dute

Sakanako XII. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sariak banatu ziren ostegunean. Izaskun Beunza eta Sergio Garcia de Eulate izan dira txapelak

Atletismoa sustatu eta Sakanako atletismo probatan korrikalari sakandarren parte hartzea bulkatzeko sortu zuen Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Sakanako Atletismo Kopa. 2015ean Sakanako Atletismo Koparen XII. edizioa izan zen, eta aurreko urteetan bezala Lasa Kirolak laguntzaile denez, Lasa Kirolak Saria izena ere hartu zuen probak. Sari ematea ostegunean, otsailaren 4an burutu zen, Altsasuko Lasa Kirolak dendan.

Bost probek puntuatzen zuten XII. Sakanako Atletismo Saria-Lasa Kirolak Sarirako: Iturmendin jokatuak XII. Aitzkozar herri krosak (maiatzak 30), Ziordiko II. Herri Krosak (ekainak 7), Ergoienako XII. Birak (irailak 19), Sakanako XV. Herri Lasterketak (urriak 24) eta Altsasuko Barricarteren XXXV. Oroimenezko Oinezko Lasterketak (abenduak 8). Sakanako 10 onenek puntuatzen zuten, gizonetako eta emakumetako, eta gutxienez 4 probatan parte hartu beharko zen.

Emakumetako Izaskun



Antolatzaileak, babesleak eta sarituak, talde argazkian. Aurten ere jokoan izanen da Sakanako Atletismo Kopa.

Beunza olaztiarrak bildu zituen puntu gehien, Ginesa Lopez altsasuarraren eta Maite Zabaleta etxarriarraren aurretik. Gizonetako Sergio Garcia de Eulate altsasuarraren izen da Kopa, Raul Audikana olaztiarraren eta Iban Gonzalez urdiandarraren aurretik. Lasa Kirolak dendan egindako sari ematean lehendabizikoek 80 euro jaso zituzten kirol materialean, bigarrenek 60 euro kirol mate-

rialean eta hirugarrenek 40 euro kirol materialean. Bestalde, Koparako baliagarriak diren proba guztietan parte hartu zuten korrikalarien artean -Izaskun Beunza, Iban Gonzalez eta Sergio Garcia- saria zozketatu zen, bi pertsonendako gau bat eta gosaria Lizarragako Bentan, eta Izaskun Beunza izan zen zorteduna. Sari ematea borobiltzeko mokadutxo bat hartu zuten bertan bildutako guztiek.

Sakanako XII. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Saria:

Emakumetakoak:

1. Izaskun Beunza Azazeta
2. Ginesa Lopez Cid
3. Maite Zabaleta Gomez

Gizonetakoak:

1. Sergio Garcia de Eulate Maia
2. Raul Audikana Arrese
3. Iban Gonzalez Barroso

www.sakana-mank.com

Sailkapen osoa begiratzeko.

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

19. JARDUNALDIA

BIDEZARRA - ETXARRI ARANATZ

BURLADES - LAGUN ARTEA

Etxarri ez zituen 3 puntuak eskuratu eta aldiz, bosgarren garaipena segidan lortu zuen Lagun Arteak. Egun laugarrenak dira lakuntzarrak eta etxarriarrak gaititu dituzte, hauek seigarren postura jaitzi baitira. Burlatan, 13. minuturako aurreratu zen Burlades baina Lagunek behetik gora egin zuen eta atsedenaldia baino lehen Anderrek berdindu zuen. Bigarren zatian Burlades aurreratu zen, baina Anderrek baina berdindu eta partida bukaeran Lagunek Urkok garaipenaren gola sartu zuen. Noainen Bidezarrak 3 eta 1 irabazi zion Etxarri partida oso lehiatu. Goikoetxeak Etxarri aurreratu zuen baina Bidezarrak berdindu zuen. Bigarren zatian Bidezarra finago ibili zen eta bi gol sartu zituen.

Sailkapena >>

1. Gares	40 p
4. Lagun Artea	34 p
6. Lagun Artea	31 p

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA - BERRIOZAR

(Igan, 16:30ean, Lakuntzan)

ETXARRI ARANATZ - MUTILBERA

(Igan, 16:00etan, Etxarri Aranatz)

ERREGIONAL MAILA. 3. multzoa

19. JARDUNALDIA

ALTSASU 1 - AMAYA O

Larunbat eguerdian Dantzalekuan jokatuak partidan hiru puntuak Altsasun geratu ziren eta altsasuarek bikain ospatu ahal izan zituzten Santa Agedak. Hasieratik agindu zuen Altsasuk eta 24. mnutuan Paulettek gol ederra sartu zuen, Amaia tiro baten erreboteari behar bezala erantzun eta gero. Amaia saiatu zen baina Altsasuk onfi defendatu zuen.

Sailkapena >>

1. Lezkairu	50 p
9. Altsasu	23 p

Asteburuko jardunaldia

ALTSASU - BETI ONAK

(Larunbatean, 12:15ean, Altsasun)

Pilota

Aldapa gora



Ezkurdiak eta Barriolak ez zuten egun ona izan.

Ezkurdia-Barriolari Binakakoa hankaz gora jarri zaie, Irujoren eta Rezustaren kontra 22 eta 7 galdu ondoren

“Ahazteko moduko partida izanda, desastre hutsa” aipatu zuen Barriolak Irujoren eta Rezustaren kontra 22 eta 7 galdu eta gero. Leitzarrak bere buruari bota zion errua, baina onartu beharra dago ez berari eta Ezkurdiari ez zitzaizkiela gauzak ongi joan. Aldiz, Irujo eta Rezusta bikain aritu ziren eta guztia atera zitzaizkien ongi.

Aste bateko bajaren ondoren Irujo izugarri aritu zen. Zezen bat bezala hasi zen, eta berehala hasi zen aldea ateratzen. Gantxo 8tan-

to egin zituen Iberokoak. Ezkurdiak eta Barriolak ezin zuten ezer egin. Rezustak ere atzean agindu zuen. Bukaeran jipoi ederra jaso zuten Ezkurdiak eta Barriolak.

Irujok eta Rezustak sailkapeneko buru jarraitzen dute -jokatuak 10 partidetatik 9 irabazi dituzte-. Aldiz, Ezkurdiak eta Barriola 5. postuan daude, 4 punturekin, eta finalerdietarako sailkatzeko lehen lau postuetan sailkatzea aldapa gora jarri zaie, Artola-Albisuk eta Bengoetxea-Untoriak seina puntu dituztelako, Olaizola-Urrutikoetxeak 7 puntu eta Irujo-Rezustak 9 puntu. Baina esperantza galtzen den

Binakakoa. Sailkapena

Irujo-Rezusta:	9 puntu
Olaizola-Urrutikoetxea:	7 puntu
Bengoetxea-Untoria:	6 puntu
Artola-Albisu:	6 puntu
Ezkurdia-Barriola:	4 puntu
Altuna III.a-Merino II.a:	3 puntu
Berasaluze II.a-Beroiz:	3 puntu
Irribarria-Merino:	2 puntu

Binakakoa. 11. jardunaldia

Victor-Beroiz/Altuna III.a-Merino II.a (ostiralean, 22:00etan, Labastidan. ETB1, ntb)

Irujo-Rezusta/Irribarria-Merino (larunbatean, 17:45ean, Iruñean)

Olaizola II.a-Urrutikoetxea/Bengoetxea VI.a-Untoria (larunbatean, 17:45ean, Bilbon. ETB1, ntb)

Ezkurdia-Barriola/Artola-Albisu (igan, 17:00etan, Oñatin. ETB1, ntb)

azkena denez, egoerari buelta eman eta lehen fasea despeditzeko gertatu diren 3 jardunaldietan etxeko lanak ongi egitea dute buruan arbi-zuarrak eta leitzarrak. Igan, Ezkurdiak eta Barriolak euren ari-berio zuzenak diren Artola eta Albisu izanen dituzte aurrez aurre.

Pilota goxua

II. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketa Altsasun

Martxoaren 4an hasiko da, Altsasuko Gazte Asanbladak eta Pilotajauku klubak antolatuta

Altsasuko gaztetxearen 25. urteurreneko ekitaldien barruan Bikotekako Pilota Goxua Txapelketa antolatu zen iaz, irailaren 18tik urriaren 9ra bitartean. Txapelketak arrakasta handia izan zuen, guztira 32 bikote aritu baitziren, bi mailatan banatuta. Arrakasta hori ikusita, aurten txapelketarekin jarraitzea erabaki dute Altsasuko Gazte Asanbladak eta Pilotajauku. II. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketa antolatu dute, martxoaren 4an hasi eta maiatzaren 7an, Altsasuko Alde Zaharreko jaietan, despedituko dena. Hiru mailatan jokatu da: lehen maila, bigarren maila eta hirugarren maila. Partidak Altsasuko Burunda pilotalekuan jokatu dira, ostiral gauetan eta igande arratsaldetan.

IZENA EMATEA ZABALIK

Otsailaren 27a baino lehen eman behar da izena, 646 772 899 telefonoan edo altsasukogazteasanblada@gmail.com e-postan.

Pilota

Julen Martija pilotariaren debuta ikusteko autobusa jarri dute

Otsailaren 12ra arte egin daiteke izena ematea

Etxeberriko Julen Martija pilotariak Asperekin debutatu du otsailaren 21ean, Eibarko Astelena pilotalekuan. Yves Salaberri “Xala” izango du bikote Martijak, Lekunekoaren agurreto bat izango den partidan. Bailarako semearen debuta ikusteko autobusa antolatu du Arakilgo Udalak eta horretaz gain, Udalak sarreraren erreserba erraztuko du. Kantxako sarrerak 30 euro balio dute eta goiko harmailakoak 15 euro. Izena ematea otsailaren 12ko 12:00ak baino lehen egin daiteke Arakilgo Udalen (948 500 101 edo ayuntamiento@arakil.infolocal.org). Autobusa eguerdiko 12:00etan abiatuko da, eta itzulera ordua 20:00ak aldera.

BAZKARIA

Bestalde, Etxeberriko Herri Erdi elkarrekin bazkaria antolatu du Eibarren. Izena emateko 626 062 897 telefonora deitu behar da.

Txirrindularitza



Azanzaren Euskadi Fundazioa, aurkeztuta

Taldeak 2016ko egitasmoa Guggenheim Museoan aurkeztu zuten, ostiralean

Ostiralean, otsailaren 5ean Euskadi Fundazioa txirrindularitza taldeak aurkezpena egin zuen Bilboko Guggenheim Museoan. Migel Madariaga manager duen taldearen helburua "txirrindularitza eskola onena izatea" dela, eta helburua "ez da horrenbeste lasterketa irabaztea, txirrindulariak trebatzea baizik, baina ez diogu ezerri uko egiten" gaineratu zuen. Aurreko urtean denboraldi bikaina egin zuen Euskadi Fundazioak, eta bi txirrindularik lortu dute profesionaletarasalto egitea, Mikel Iturriak eta Mikel Aristik. Jorge Azanza altsasuarra eta Gorka Gerrikagoitia izanen dira, atzera ere, taldeko zuzendariak. Beren aginduetara 16 txirrindulari izanen dituzte, afizionatuen mailan lehiatuko direnak; Egoitz Fernandez, Oscar Gonzalez eta Xabier San Sebastian dira nabarmen direnak. Euskaldun Torneoa, Lehendakari Txapelketa eta Espainiako Kopa dira helburu nagusienak, eta baita Portugalgo eta Frantziako egutegiako proba jakin batzuk ere. "Gu lasterketa guztiak irabaztera aterako gara. Lehiakorra izan behar da, irabazi ala ez" azaldu zuen Gerrikagoitia aurkezpenean. Aurreko urtean 30 lasterketa baino gehiago irabazi zituen Euskadi Fundazioak, tartean Altsasuko festetako Altsasuko 86. Txirrindularitza Proba, Jorge Azanzaren zuzendaritzapean Mikel Iturriak irabazitakoa. Proba horrek erabaki zuen Euskaldun Torneoa, Mikel Iturriarendako izan zena.

Atletismoa

Izaskun Beunza bederatzigarrena Nafarroako Kros Luzeko Txapelketan

Javier Nagorek eta Ana Ollok irabazi zuten txapelketa

Lizarrako Los Llanos parkeko zirkuituan jokatu zen Nafarroako Kros Luzeko Txapelketa, igandean. Gizonezkoek 9,7 km eta emakumezkoek 7,3 km osatu behar izan zituzten. Nafarroako Kros Motzean gertatutakoa errepikatu zen,

Javier Nagore (30:30) eta Ana Olló (26:37) izan baitziren txapeldunak. Izaskun Beunza bederatzigarrena iritsi zen helmugara (30:21). Olaztiarrak aipatu digunez "lehertuta bukatu nuen, baina oso kontentua". Kros Laburrean 11.a sailkatu zen olaztiarra, baina luzean hobeto ibili da, 9.a izan baita.



Izaskun Beunza, erdian, Altsasuko Barricarteren Omenezko Lasterketan.

Futbola

Altsasuko neskek, Txapeldunen Fasera

Nafarroako 6 talde onenen artean sailkatu dira altsasuarrak

Aurten estreinatu da Altsasu emakumezkoen taldea. Eta hara zer nolako debuta egin duen. Emakumezkoen Futbol 8 ligako lehen multzoan lehiatzen ari dira altsasuarrak eta primeran ibili dira. Lehen faseko azken jardunaldian, hamalagarrenean, Altsasuk Ardoi B taldeari 5 eta 1 irabazi eta gero-Irati Igoak 3 gole eta Eiderrek eta Nereak bana-, Gazte Berriak Antsoain da liderra, 27 punturakin, eta Altsasu bigarrena da, puntu berberekin (27 puntu).

Futbol 8 ligako lehen fasea bukatuta, orain bigarrenari ekingo zaio. Futbol 8 ligako 3 multzotako bi talde onenek Txapeldunen Fasean jokatu dute, sei talde guztira. Tartean dago Altsasu.

Emakumezkoen Futbol 8 ligako sei talde onenen artean daude altsasuarrak, Kirol Sport, Lagunak, Amigo, Beti Gazte eta Gazte Berriak Antsoain taldeekin batera. Txapeldunen fasea otsailaren 20an hasiko da.

"Oraindik ez dugu sinisten, lehen urtean horren denboraldi ona egitea oso zaila delako. Gainera, izugarri kostatu zitzaigun nesken taldea ateratzea. Beraz, lortutakoaz disfrutatu behar dugu eta oraindik lan handiagoa egin behar dugu bigarren fase honetan, Txapeldunen Ligan, partida batzuk irabazteko" adierazi du nesken taldeko entrenatzaile eta Sociedad Deportiva Altsasuako futbol koordinatzaile Gorka Paskuak. Neskek entrenatzeko lanbidean Adrian Claver du bidaide Gorka Paskuak.

Emakumeen Altsasu Futbol Taldea



Jokalariek: Jone Apaolaza, Saioa Sayas, Nerea Arellano, Udane Vergara, Ainhoa Agirre, Amets Oteiza, Aroa Cerezo, Silvia Amores, Maider Granizo, Irati Igoa, Naroa Barriola eta Eider Vicente.

Entrenatzaileak: Gorka Paskua eta Adrian Claver. Hasieran Ane Cantero zen Paskuaren laguntzailea, baina utzi egin behar izan du Galiziar joan delako futboleko jokatzera.



Etxarriko futbol eskolakoak Sadarren

Etxarri Aranazko Futbol Eskolako ikasleak Sadarren izan ziren igandean, Osasuna Fundazioak futbol eskolekin egiten duen kanpainaren barruan, Osasunak eta Almeriak jokatuako partida ikusten. Horretaz gain, Osasunako futbol taldearekin argazkia ateratzeko aukera izan zuten Etxarri Aranazko eta Berriobeitiko futbol eskoletako neska-mutikoek, haien gozamenarako.



Etxarriko futbol eskolako neska-mutikoek Osasunako jokalariekin talde argazkia atera zuten, Sadarren. OSASUNA

Irristaketa

Iratxe Lapuente bikain Iruñean



Benjaminetan lehena sailkatu zen

Asteburuan Iruñeko San Juan kiroldegia irristaketako lehen indoor proba hartu zuen. Bertan aritu ziren Sakana Irristaketa Taldekoak, Juli Acebes monitorean aginduetara. Ongi aritu ziren, eta tartean Iratxe Lapuente Perez emakumeen benjamin mailan lehena sailkatu zen. Albeste bikaina, beraz, Sakanako irristaketarako.

Asteburu gauetarako
Menu berriak
Ostiral eta larunbata gauetan

San Kiriko
MENU
29€

San Adrian
MENU
35€

Borda
JAFETEA - RESTAURANTE

Egin zure erreserba!
948 46 05 45

www.bordajatetxea.com

kultura >>

Gure bardo talde bat aurrera



Nafarroako taldekako bertso ekimenean Etxarri Aranazko Einnekin taldeak egin du aurrera. Lehen parte-hartzea zuen Altsasuko Bota lasairen txandak, beste batean izan beharko du

Etxarri Aranazko gaztetxean jokaturako bertso-merendu saioan lortutako puntuarekin Einnekin taldeak aurrera egin du Bardoak ekimenean. Mainer Ansak aurkeztutako saioan Eneko Lazkoz, Saats Karasatorre eta Jon Arratibel etxarriarrak Barañaingo Barakinak taldeko Ander Perezekin, Lizar Alemanekin, Jon Arrizbitarekin eta Pablo Perezekin bertsoan neurtu ziren. 40 bat bertsozaleren aurrean arituz ziren. Etxarriarrek eskuratu zuten puntua eta bigarren fasera pasatu da taldea, beste bostekin batera.

Etxarriarrek Berako Larungo

antenak taldearekin neurtuko da bigarren fasean edo final erdikoetan. Etxarriko bardoekin neurtzeko prest dira Julen Zelaieta, Patxi Castillo, Aitor Elexpuru eta Jokin Pinatxo bertsolariak. Joantorriko bertso saioen ondoren martxoaren 19ko Etxarri Aranazko finalerako hiru taldek eskuratu dute txartela.

Bota lasai

Altsasuko bertso eskolako taldeak (Aitziber Grados, Idoia Granizo, Ekain Alegre, Josema Leitza eta Aritz Goikoetxea) aurreneko parte-hartzea zuen Nafarroako taldekako bertso ekimenean. Etxeko saioa irabazi bazuen ere ezin izan du lehiaketan aurrera egin. Hala ere, bertsolari altsasuarrek plaza berrietan kantatzeko aukera izan dute.



Altsasuarretik duen Goya saria

Film labur dokumental onenaren Goya saria jaso duen *Hijos de la Tierra* lana sortzen aritu da Javier San Felipe Larrea altsasuarra

Espainiako Zinema Akademiak film labur dokumental onenaren Goya saria *Hijos de la Tierra* lanari eman ziola jakinaraztean poz oihubatentzuzen aretoan. Javier San Felipe Larrea izan zen. Patxi Uriz Domezain eta Axel O'Mill Tubau zuzendariak saria jasotzera igo ziren, baina altsasuarra bere aparteko aukerak ezin kabituz zegoen. San Felipek esan digunez, "Lanari, konstantziari eta ahalginiari emandako saria da". Aurretik, Madrileran iristean halako gorakada izan zuten. "Lortutako helmuga zen. Baina irabaziko genuenaren sentipena genuen". Sariak eguneroko lanean aurrera egiteko balio diela azaldu digu.

Altsasuarrek Uriz duela bospasei urtetik ezagutzen du. Orduan haren sorterriko, Garesko, belar-biltzaile bat eta Amazonia arteko lotura egin nahian zebilen zuzendaria. San Felipek proiektuak 2011tik izan duen garapena gertutik ezagutu du. Azkenean, *Hijos de la Tierra* izenburua hartu zuen. Lana Altsasun proiektatzen saiatuko da.

Sarean ikusgai

Trailerra <https://vimeo.com/88798212> helbidean ikusi daiteke. 1,84 euro pagatuta film laburra <https://vimeo.com/onde-mand/hijosdelatierra/146345391> helbidean ikusteko aukera dago.

AHO ZAPORE ONAREKIN ETXERA: Etxarriko abesbatzak eta Pamplonesa bandak elkarrekin aritu ziren igandean. Iruñeko Gaiarre antzokia beteta zela, entzuleen gogokoa izan zen kontzertua.

Zer ote da espazioan bizitzea?

Zero grabitatea erakusketak otsailaren 18tik martxoaren 17ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekian 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean

Aldian behin, nazioarteko espazio-estazioaren berri ematen dute albistegietan. Edo halako herrialde batek espazio-misio bat bidali duela jakinarazten digute. Pertsonak espazioaren erdian. Astronauta deitzen zaie mendebaldean. Kosmonauta Errusian. Eta taikonauta Txinan. Eta askotan hor goian dauden pertsona horiei buruzko galdera berak sortzen zaizkigu askori: nola bizi dira? Nola trebatzen dira? Zer jaten dute? Nola asetzen dituzte behar fisiologikoak? Zer da beharrezko hutsean bizi ahal izateko?

Jakin-min hori asetzeko aukera izanen da Iortia kultur gunean ostegunetik aurrera. Espazio-bidaiarietarako erabiltzen dituzten objektu eta material errealak ikusgai izanen dira: maketa, jantzi, argazki, elementu tekniko eta eguneroko objektuak. Horien bitartez espazio-bidaiariaren eguneroko bizitza hobe ezagutzeko aukera emanen du *Zero grabitatea* erakusketak.

Horrekin batera, espazioaren konkista, SESBen eta AEBen arteko espazio lasterketa, ilargiaren konkista, sateliteak, Marte eta beste planetetara bidalitako esplorazio gailuak... Horiek guztiak eta gehiago gogoraraziko dizkigu erakusketak.



Haize Berriak bandaren DVDaren salmenta martxa onean

Sakanako musika eskoletan eta ibarreko herri gehienetako hainbat denda eta tabernatan 10 eurotan salgai dago. 661333523 telefonoan edo bandahaizeberriak@hotmail.com eskatu daiteke ere. Jasotako dirua inbertsioa estali eta bandaren egitasmo berrietara bideratuko da

Haize Berriak Bandako kideek Esker ona azaldu diete Enrike Zelaiaren omenez antolatutako kontzertua posible egin zuten guztiei. Bereziki mezenazgo legearen bidez, Mecnaren bidez, diru ekarpena egin zuten guztiei. Horrela, 4.000 euro jaso zituen bandak. Kontzertua *Zatoz agur* izenburuko DVDan jaso da eta hura posible egin dutenei ere eske ona azaldu die bandak.

+www.guaixe.eus

Musikari kurdua Irurtzunen

Bihar, 20:00etan, Irurtzungo kultur etxean Gani Mirzok Irak-en menpeko Kurdistango Domiz errefuxiatu eremuaren aldeko elkartasun kontzertua eskainiko du

Ekialdearen eta mendebaldearen arteko zubi lana egiten du Gani Mirzoren musikak. Kurdistango, ekialdeko musikak flamenkoarekin eta jazzarekin nahastuz sortzen ditu. Lautearen eta gitarren arteko bidegurutzeta da. Hiru disko argitaratu ditu. Gaur egun bere banda Neila Benbeyk (kantaria, Arjelia), Juan Jose Barredak (espainiar gitarra, Espainia), Martin Melendezek (Txeloa, Kuba) eta Aziz Hodayk (perkusioa, Maroko) osatzen dute. +www.guaixe.eus

bazterretik

Izaskun Beunza

Alejandro Aravena Arkitektoak 2016ko Pritzker Saria jaso du

Pritzker Arkitektura Saria, eskuarki Arkitektura Nobela gisa aipatuta, urtean behingo nazioarteko ospe handieneko saria da eta arkitekto bat ohoratzeko ematen den garrantzitsua.

Epaimahaiak Alejandro Aravena aukeratu du 2016. edizioko irabazle. Aravena 41. sariduna eta lehen txiletarra da aipamena jasotzen. Aurtengo sariak arkitektoei aten-

tzioa eman nahi izan die, oinarrikoan fokuratzeko gonbidapen positiboa luzatuz. Izan ere, Aravenak arkitekturaren eragin eremua handitzeko duen gaitasuna nabarmendu nahi izan da. Hiri-inguruneak hobetzeko eta etxebizitza edukitzearen inguruan segurtasunik eza sortzen duen munduko krisiari aurre egiteko konponbideak zehazteko ahalmena saritu da.

Gizartearekin konprometitutako 48 urteko arkitektoak 2500 etxebizitza sozial baino gehiago erai-

kitzea lortu du etxebizitza politika publikoetan nahasiz eta bere lanbidea erabiliz, gizarte arismentan handiko benetako inpaktua sortzeko. Gaur egun, Hego Amerikan 400 milioi pertsona baino gehiago bizi dira, munduko populazioaren %6, eta hauetatik %80 hirigunean bizi da. Honek eskualdean etxebizitza-defizit altua sortu du eta ondorioz planifikazio zehatzik gabeko kokaguneak sortu dira. Ordenaziorik gabeko urbanizazio prozesu hauek etxebizitza gune guztiz prekarioak sortu dituzte. ONU habitat-ek

igorritako azken txostenaren arabera, Hego Amerikan eta Karibearen etxebizitza prekarioetan bizi diren pertsonen kopurua 110,7 milioietara heltzen da. Hiri-hazkundera erantzuna emateko, hemendik 2030. urtera garapen bideko herrialdeetan aste bakoitzeko miloi bateko biztanleria izango lukeen hiria eraikitzeke gai izan beharko ginatete.

Arevalo ELEMENTAL taldeko buru da. Arkitekto talde honek behar-tsuenei etxebizitza emateko lan egiten du. Pertsona eta gizarte-

aren onurarako emaitzarik onenak lortzea du helburu eta horretarako politikari, abokatu, iker-tzaile, egoiliar, tokiko agintari eta konstruktoreekin elkarlanean dihardu.

Sariduna arkitektoaren irudi unibertsal eta tradizioetik harago doa; dagoeneko eraikitako arkitekturaren, ingurumenean, konponbide sozialak aurkitzea eta praktikan jartzea du helburu. Diseinua balio erantsia izan dadin eta ez kostu gehigarria, Arkitektura berdintasunerantzko bidezidor.

“Mari jainkosa sekulako tresna da gure jatorri eta etorkizunaz jabetzeko”

Yolanda Mazkieran, “Mariren sua” egitasmoaren sortzailea

Testua: Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Euskal mitologian bada ororen gainetik gailentzen den figura bat: Mari jainkosa. Kondairen arabera, gainontzeko izaki guztiak eta fenomeno naturalak haren esanetara daude. Euskaldunen herri jakintzan Marik bizitza eta bizi-irrika irudikatzen ditu. Sortzaile handi eta naturaren pertsonifikazio kontsideratzen da, eta emetasuna botez hornitzen du. Ezaugarri horiek guztiak pertsonaia liluragarri bilakatzen dute.

Uste horretakoa da Yolanda Mazkieran altsasuarra, “Mariren sua” egitasmoaren sortzailea. Hainbat urtez Mariren inguruko materiala biltzen aritu ostean, iragan abutzuan jainkosa ardatz duen film laburra grabatu zuen San Pedroko zelaian. Luxuzko parte-hartzearekin, gainera: Enrike Zelaia akordeolaria, Itziar Nazabal margolaria, Raul, Naiara eta Maddi Urkijo txalapartariak eta Altsasuko hainbat dantzari eta abeslari. Filma igande honetan mustuko dute, 19:00etan, Iortia kulturgunean.

Zer dela erabaki zenuen film labur hau ekoiztea?

Urteak daramatzat “Mariren sua” proiektuaren baitan Mari ikertzen. Jainkosaren inguruan materiala guri daukat eta jendarteratzeko beharra ikusten nuen. Udan, Altsasun nengoela, bideo labur bat egitea erabaki nuen. Helburua proiektua indartu eta hauspotzea da. Dena den, bideoa beregaina da, ez du beste elementu batzuen beharrik osotasuna izateko.

Zer berezitasun ditu Mari jainkosak?

Intelektual asko Mari aztertzen ari dira. Marija Gimbutas antropologoaren arabera, Neolitikoan eta Paleolitikoan Ama Jainkosa gurtzen zuten, bular handi, aldaka zabal eta bizitza emateko gaitasuna zuen emakumea zena. Gimbutas Euskal Herriko herri kultura aztertzen aritu da, eta ondokoa ondorioztatu du: Neolitiko eta Paleolitikotik bi harribitxi datozkigu, euskara eta Mari. Azken honen oroimenak oraindik bizirik dirau. Gauzak horrela, proiektuaren bidez jainkosaren izana jendarteratu nahi dut. Euskal mitologiaren erdigune dela ikusirik, merezi du.

Zure esanetan, Mariri buruzko ezagutzak emakumeak ahalduzko balio dezake.

Mari sekulako tresna da gure jatorri eta etorkizunaz jabetzeko. Aduarra, barne indarra, kendu ezin zaion kemena duen izakia da. Egun

kanpoko indarrean galduta gabiltza, adurraren bila ibili beharrean. Kanpokoak alde egiten du, baina barne indar hori elikatuz gero, boteretsuago bilakatu gaitzke. Emakumeok gauza asko irabazi ditugu, baina oraindik gauza asko daude egiteke. Mariren figurak aukera ematen du emetasunaren boterea, emakumeok umetokian dugun adurra aldarrikatzeko eta, horrekin batera, gizarte patriarkalari kontra egiteko.

Horretarako, baina, jainkosaren berri izan behar da. Jendeak badu honen inguruko ezagutzarik?

Gaur egun jende askok ez du bere berri, Mari sekulako altxorra den arren. Elkarbizitza denon ahotan dabilen garaiotan, Mariren lege-riarreatza ez legoke gaizki. Izan ere, honek bizikidetzarako kontzeptu oso baliagarriak jasotzen ditu. Harroputza ez izatea, gezurrik ez esatea, lapurretarik ez egitea, begirunea inori ere ez galtzea, elkarlaguntza ez ukatzea... printzipio horiek guztiak jasotzen ditu Mariren legeak. Oso aproposa litzateke gure arbasoek zuten jakituria hori gaur egun aplikatzea.

Horrez gain, Mari ama-lurraren gurtzarekin ere loturik dago. Egun lurrari kalte handia ari zaio egiten gizakia, eta serio hartu beharreko kontua da. Ama-lurra errespetatzen ikasi behar dugu, eta horretarako Mariren ekarpena oso baliagarria da. Euskararekin, paganismoarekin, animismoarekin... ere lotura estua dauka. Urrezko altxorra da.

Harribitxia izaki, nola da posible jendartean honen inguruko ezagutza zabalagoa ez izatea?

Sarritan herri jakinduria galduz joaten da, eta Mariren kasuan hala gertatu dela esan daiteke. Nolanahi, Euskal Herrian oraindik badago nolabaiteko memoria. Esaterako, Enrike Zelaia azaldu dit nola behin Altsasuko herri guztia kale-

ra irten, eta askok gaupasa egin zuten. Marizerua zeharkatzen ikusteko. Beraz, hor bada sentimendu, izpiritu, ideia, sinesmen bat.

Filmaren ekoizpen prozesua magiko gisa definitu duzu.

Bai, guztiz magikoa izan baita! Grabazioan oso ongi pasa genuen, giroa aparta izan zen. Mariren energia alde izan genuela esan daiteke. Dena primeran atera zitzaigun. Egun bakar bat nahikoa izan genuen grabaketa guztiak egiteko. Hor funtsezkoa izan zen niretzat Joseba Salegiren laguntza. Zuzendari laguntzaile gisa oso lagungarria izan zen. Eta ondoren edizioan ere lan handia egin du.

Euskara erabili zenuen. Hizkuntzaren hautuari zer nolako garrantzia eman zenion?

Handia. Jende askok uste du Altsasun apenas dagoela euskaldun jendea, eta ez da horrela. Euskara hitz egiten da, bizirik dago. Grabazioan 30 bat pertsona izan ginen, eta hiruzpalau pertsona kenduta beste guztiok euskara dakigu. Enrike Zelaia eta Joseba Salegik, esaterako, ez dakite euskaraz hitz egiten, baina hasieratik garbi esan ziguten komunikazioa euskaraz izatea nahi zutela.

Mundu honetan baduzu eskarmentua. Hainbat dokumental eta film labur egindakoa zara. Proiektu hau nolako esperientzia pertsonala izan da zuretzat?

Zoragarria. Prestaketa lanean eta grabaketan izugarri gozatu dut. Egia da post-produkzio lana astunagoa egin zaidala. Otsailaren 14an filma jendaurrean aurkeztea ere ez da lan erraza. Baina dena iritsi naiz, eta balorazioa, oro har, primerakoa da.

Laburmetrairean aurkezpena Santa Ageda eta Inauteri inguruan

egingo duzue.

Erabaki kontzientea da?

Guztiz. Santa Ageda emakumeen jaia zen, erromatarrek ospatzen zuten matronaliarekin lotura estua zeukan. Proiektu hau ere emakumeena da, nahiz eta gizonak ere lagundu diguten. Lotura bat ezarri nahi izan dugue egitasmoaren eta Santa Agedaren jatorri eta izaeraren artean. Eta Inauteriei dagokierenez, hauek gure sustraiak eta erri- to paganoak irudikatzen dituzte, eta polita iruditu zitzaigun aurkezpena honekin ere lotzea.

Bideoa “Mariren sua” proiektuaren barruan dago kokaturik. Egitasmo honek bestelako ekimenak ere barnebiltzen ditu?

“Mariren sua” zuzeneko ikuskizunetan oinarritzea nahiko nuke. Orain film labur bat eginduan arren, proiektua ez da egitasmo zinematografiko bat. Bideoak biltzen duena da jendea proiektura erakartzea. Nire asmoa jendea naturara eramanez bertan ikuskizuna eskaintzea da. Performance hau Marik, sorginek, eta bestelako izakiek osatuko luke; esaterako, xamanek. Mexikoko xamanak eza-gutu ditut, eta konturatu naiz xaman horiek eta hemengo sorginek bat etortzen diren gauza asko dituztela.

Bestalde, hauetan emakumeen

umetokia-renaskapena ere jorratu nahiko nuke. Puntu oso energetikoa da, oso boteretsua, baina oso zigortua izan da. Egun mugimendu handia dago umetokiaren askapena bultzatzeko, eta ikuskizunetan horri ere heldu nahiko nioke.

Igandean aurkeztuko dudana bideoa nahiko tradizionala da, baina ikuskizuna guztiz garaikidea izango da, modernoa, elementu asko bilduko dituena.



Zure ordenagailuak pott egin badu, lagundu zaitzakegu

- Sakanako etxe guztietara joaten gara
- Doako eta konpromezu gabeko aurrekontua
- 90 eguneko bermea

Harremanetarako

644 244 277

Doble click

Txooooo!

JUANLUZENA SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik

ODERITZ
948 604 571 | 680 652 183

MAPFRE

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM
jimazpr@mapfre.com
948 563 354 · San Juan 48 behekoa · ALTSASU

Mozorro landia

IHABAR

Ihote ospakizuna bihar-etzi

Ihabardarrak ihoteei eskainiko diete asteburu hau. Baserritarrez jantzitako gazteek puska biltzeari ekinen diote bihar, 11:00etan. Gazteek jasotako puska horiek bihar eta etziko bazkarietako menua izanen dira. Mahaira Gure Kabiya elkartearen eseriko dira ihote segiziokoak. Larunbatean, bazkaldu eta gero, 18:00ak aldera, moxorroek etxez etxeko erronda egingen dute. Eskutan zigorra eta beste eramanen dituzte. Haiekin bidean opatzen dituztenak berotu eta zikinduko dituzte. Erronda despeditzean herri afaria eta dantzaldia izanen dira.

Igandean ihote segizioko gazteak bazkaltzera elkartuko dira. Iluntzean Ihabarra urteroko bisita egingen du Aitezarkoak, Landarraketa Niniak osatutako familiak. Eta haiekin batera hartzak. Moxorroak eta txistulariak lagun dituztela kalejira egingen dute. Plazan Aitezarko gaiztoaren epaia betekoda, sutan erretzea, Landarra negar batean gelditzen den bitartean. Gaiztakeria garaitu ondoren, ihotea despeditzeko, ihabardarrekin otamena izanen dute.

ALTSASU

Altsasuarrek euren ihote zikloa bihar despedituko dute. Haurren eta hiri ihoteen ondoren, bihar hiri ihotearen txanda izanen da. Lagun koadrilak euren moxorroekin kalea aterako dira eguerditik aurrera.

>> Otsailak 13, larunbata.

Hiri inauteria

13:30etan Dantza poteoa Sakaranga txarangarekin.
17:00etan Mozorro lehiaketa, Intxostiapunta gazte gunean.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Jamaica Show taldearekin, Foru plazan.
21:00etan Gazte afaria, Intxostiapunta gazte gunean.
22:30etik 00:30era Dj Sergey, Intxostiapunta gazte gunean.
00:00etatik 3:00etara Dantzaldia Jamaica Show taldearekin, Foru plazan.

OLATZAGUTIA

Mari Arrokarren eta zamarroen bisitak

Asteartean haurren inauteria ospatu ondoren, olaztiarrek Mari Arrokarri harrera egingen diote gaur. Diotenez, Mari Arroka mendi batetik bestera suzko igitai baten gainean hegaz joaten zen. Gaur zamarroek

tiratutako gurdi gainean irudikatuko dute. Mari Arroka, eskutan suzko igitai duela, kalez kale ibiliko da eta plazara iristean ihoteei ongi etorri egingen die. Hala, zamarhandiak eta zamartxikiak bihar iluntzean kalez kale ibiltzeko aukera izanen dute. Haiekin batera, ihotesegizioa alkate jaun-andreek, auntsiak, apaizak eta medikuak osatuko dute. Garai batean mutilek etxez etxe eskatzen zuten zekalea udaletxera eraman eta saldu ondoren horiei ordaintzeko.

BERRITASUNA

Hiri inauterien barruan udalakaurreneko gurdi lehiaketa antolatu du. 14 urtetik gorako koadrilak parte hartu ahaliko dute. Gaia libre da. Gurdia orijinala eta beste inoiz parte hartu gabea izan beharko da. Parte-hartzaileek beraiek egindako gurdiak izan beharko dute. Egunean bertan eman beharko da izena, gurdiaren izen txikiarekin batera. Epaimahaia bi zinegotzik eta Kultura Batzordeko kide batek osatuko dute. 200 eta 100 euroko bi sari banatuko dituzte.

EGITARAUA

>> Otsailak 12, ostirala

19:00etan Mari Arrokarri ongi etorria girotzeko moxorratzea, gaztetxean.
20:00etan Mari Arrokarri ongi etorria, gaztetxe ondoan.
21:00etan Auztaea, parte-hartzaileendako gaztetxean.

>> Otsailak 13, larunbata

11:00etan Puska-biltzea, gaztetxetik, kalejira. Jasotakoa herriko elikagaien bankuari eta Paris 365eri emanen diete.
14:30ean Bazkaria, gaztetxean.
18:30ean Herri ihoteak, areto futboleko zelaitik abiatuta. Akaberan, zortzikoa, plazan.

>> Otsailak 20, larunbata

12:00etan Gurdi lehiaketako izen ematea, areto futboleko pista. Ondoren, ihote gurdien irteera.
14:30ean Herri bazkaria, frontoian.
16:00etatik 19:00etara Los Pasai txaranga.
19:00etatik 23:00etara Dantzaldia Nemux diskorekin.
20:00etan Karrozen lehiaketako sari banaketa, dantzaldian.

ZIORDIA

Helduen txanda

Ziordiar txikiak asteartean moxorrotu ondoren, nagusien txanda bihar. Mozorrotuendako hitzordua 19:00etan jarri dute, orduan triki-poteoa abiaraziko baitute. Ondoren, 21:30ean, Errekakartea elkartearen moxorrotuaren afaria izanen da. 78 pertsonen eman dute izena.



IRAÑETA



IRURTZUN



IRURTZUN



IRAÑETA



OLAZTI



ZIORDIA

Mozorrolandia

Argazki gehiago www.guaixe.eus-en



UHARTE ARAKIL



IRURTZUN



URDIAIN



ARRUAZU



UHARTE ARAKIL



LAKUNTZA



ARBIZU



ARRUAZU



UNANU



LIZARRAGA



ITURMENDI



IRURTZUN



Mozorrolandia

Argazki gehiago www.guaixe.eus-en



ZIORDIA



LAKUNTZA



ARRUAZU



IRURTZUN



UNANU

Aurten estreinakoz, astearte ihotean emakume batek, Aintzane Marinek, jantzi du katuela.



IRAÑETA



UHARTE ARAKIL



LIZARRAGA



ARRUAZU



LAKUNTZA



UHARTE ARAKIL



IRAÑETA



Mozorro-landia

Argazki gehiago www.guaixe.eus-en



URDIAIN



URDIAIN



ITURMENEDI



ALTSASU



ITURMENEDI



UNANU



ETXARRI ARANATZ



URDIAIN



UNANU



UHARTE ARAKIL



ARBIZU



ETXARRI ARANATZ

SAKANAKO INAUTERIAK 2016 >> Mozorrolandia



Mozorrolandia

Argazki gehiago www.guaixe.eus-en



URDIAN



ARRUAZU



UHARTE ARAKIL



ALTSASU



ZIORDIA



OLAZTI



KORTZUN



ALTSASU



LAKUNTZA



ETXARRI ARANZAT



IRAÑETA



ARBIZU

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 98%	euria: 99%	euria: 99%	euria: 99%	euria: 96%	euria: 55%	euria: 70%	
Min: 5 Max: 11	Min: 9 Max: 12	Min: 5 Max: 6	Min: 3 Max: 3	Min: 1 Max: 3	Min: -2 Max: 4	Min: -1 Max: 5	

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	15.5	-0.5	27.2
Etxarri A.	14.9	-2.5	48.5
Altsasu	14	-1	61.3
Aralar	6.8	-1.9	22.6
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

	ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
	15	22	1	9

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Bazkide zozketa

OTSAILEKO SARIAK:


1. SARIA:
Ekainberri: 2 sarrera
Artazako Kanpina: %10eko deskontua
Lacturale: esneki lotea
Artium museoa: 2 sarrera
Gaztezulo: 3 hilabetez doan
Magna Gurpea: 2 sarrera

2.,3. ETA 4. SARIA:
Artazako Kanpina: -%10
Lacturale: esneki lotea
Artium museoa: 2 sarrera
Gaztezulo: 3 hilabetez doan
Magna Gurpea: 2 sarrera

>> 11 galdera

Peio Goietxe
Sakana Harrera Hiriak ekimeneko kidea

Testua: Eñaut Agirrebengoa Apaolaza



uharte arakil
arazolanear

Arakil

GUAIXE KOMUNIKAZIOA
948 564 275 argi@guaixe.eus

UDAL BULETINAK
herritarrengandik hurbil

1.- Berriki eratu duzue Sakana Harrera Hiriak erakundea. Zein da honen helburua?

Xedea errefuxiatuen errealitateaz eta krisiaz informatu eta sensibilizatzea da. Horrez gain, Europako estatuetakoa gobernuen jarreraren berri ere eman nahi dugu. Eta horretaz gain, dirua lortu nahi dugu Domizeko errefuxiatu-gunera bidaltzeko.

2.- Nola sortu zitzaizuen ekimena abiatzeko ideia?

Sakana ere errefuxiatuekiko elkartasun olatura batzea erabaki genuen. Sakana Harrera Hiriak ez da soilik informatzeko edota salatzeko sortu; sareak ehundu eta errefuxiatuei babesa eta elkartasuna eskaintzea ere funtsezkotzat jotzen dugu.

3.- Proiektua gorpuztea lan neketsua izan al da?

Ez, nahia eta inplikazioa izanda horrelako egitasmoak aurrera irteten dira. Orain proiektua zabalteza dagokigu. Horretarako funtsezkoa izango da eskolekin, udalekin eta Sakanako Mankomunitatearekin elkarlanean aritzea.

4.- Orokorrean sakandarrak errefuxiatuen egoeratik kezkatuak daudela uste duzue?

Bai. Irurtzunen, esaterako, jendea oso sensibilizaturik dago herri kurduarekin. Dena den, oraindik lan asko dago egiteke. Gure zeregina da sensibilizazioa Sakana oso zabaltzea, errefuxiatuekiko elkartasuna ahalik eta handiena izan dadin.

5.- Erakundea aste honetan ari zarete aurkezten, Irurtzunen.

Bai. Herenegun errefuxiatu-eremuei eta harrera hiriei buruzko hitzaldia eman genuen, eta bihar Gani Mirzo, Alepoko artista kurduak kontzertua emanen du. Ondoren elkartasun afaria izanen da Iratxon. Lortutako dirua Domizeko kanpalekura bidaliko dugu.

6.- Ibarrean barrena aurkezpen gehiago egingo dituzue?

Noski, proiektua Sakana mailakoa delako. Herri desberdinetan proiektzioak, hitzaldiak eta beste-lakoak egitea daukagu aurreikusirik.

7.- Zein izango da hurrengo urratsa?

Gaiaz sensibilizatzeko bide desberdinak aztertuko ditugu. Horrez gain, ibar osoan barreiatutako lantalea nola koordinatu pentsatu beharko dugu. Izan ere, ekimenak herri guztietako jendea bilduko du. Horretaz landa, instituzioen inplikazio handiagoa lortu nahiko genuke, bai udalen partetik, bai Nafarroako Gobernuaren partetik. Horretarako presio lana egitea dagokigu.

8.- Diru-bilketarako zer bide erabiliko dituzue?

Alde batetik, kontzertu, afari eta hitzaldietarako txartelak salduta. Eta, bestetik, borondatezko ekarpenen bidez. Horretarako bi kontu korrante ireki ditugu. Lorturiko diruarekin Domizeko errefuxiatu-guneari laguntzeko gure aletxo jarriko dugu.

9.- Nolokoa da errefuxiatuek Domizen bizi duten egoera?

Domiz Irakeko Kurdistanen dago kokaturik. 30.000 pertsona hartzeko gaitasuna dauka, baina egun 50.000 errefuxiatu inguru daude bertan. Ez dago nahikoa baliabiderik bertan dauden pertsona guztien beharrei erantzuteko. Baldintzak benetan gogorak dira: ur eta higiene instalakuntzak oso kaskarrak dira, eta gaitzak harrapatzeko arrisku handia dago.

10.- Gobernu europarrek errefuxiatuekiko izan duten jarrera nolokoa da?

Lotsagarria. Pasibotasun handia ari dira erakusten benetan larria den gai batekiko. Jendea itsasoan hiltzen ari da, eta Europa ezikusiarrena ari da egiten. Are gehiago, kasu batzuetan errefuxiatuak lagundu nahi dituztenen aurka ari dira egiten. Adibidez, Greziako Lesbosen dabilzan boluntario asko ustez pertsona-trafikoan aritzeagatik atxilotu dituzte. Elkartasuna zigortu egiten dute. Ertzekoa da.

11.- Krisi humanitario hau geldiarazteko giltza zein izan daiteke?

Herritarren eta instituzioen arteko sarea osatzea da bururatzeko zaidan irtenbidea. Siriako errefuxiatuen migrazioak eteteko modu bakarra bertako gerra etetea da. Herritarrek kalera irten, salatu eta aldarrikatu dezakegu, baina azken hitza estatuek dute. Eta hauek oso interes gutxi dute gerrarekin amaitu eta errefuxiatuen egoera konpontzeko. Egoera zaila da.